

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

**Ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda jendaurrean jartzea
—2024ko bigarren seihilekoa—**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2024ko bigarren seihilekoa—, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea—, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke erre-kurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2024ko irailaren 20tik azaroaren 20ra artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko ekainaren 21ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO